



IKAZTEGIETAKO UDALA
GIPUZKOA

2017KO MARTXOAREN 29KO OHIKO UDALBATZA.

NOIZ: 2017ko martxoaren 29an, gaueko 21:00etan

NON: Ikaztegietakoko Udaletxeko Areto Nagusian

BERTARATUAK: Alkatea: Bakarne Otegui Jauregui (EH BILDU)

Zinegotziak:

Xabat Iburguren Lazkano (EH BILDU)

Igor Urreta Garayalde (EH BILDU)

Patxi Ulanga Mujika (EAJ-PNV)

Maria Belen Plaza Malaxetxebarria (EAJ-PNV)

Idazkaria: Jose Mari Saiz Pagoaga.

BERTARATU EZ DIRENAK:

Miren Josune Mendizabal Macazaga (EH BILDU)

Imanol Ormazabal Arin (EAJ-PNV)

AZTERGAIAK:

- 1.- 2016ko abenduaren 28ko ohiko eta 2017ko martxoaren 8ko ez ohiko udalbatzetako akten onarpena.
- 2.- Alkateak emandako ebazpenen kontu ematea.
- 3.-2016. urteko udal aurrekontuaren likidazioaren berri ematea.
- 4.-Orain arte exekutaturako aurrekontuaren eta altxortegiaren berri ematea.



IKAZTEGIETAKO UDALA
GIPUZKOA

2017KO MARTXOAREN 29KO OHIKO UDALBATZA.

- 5.- 1/2017 kreditu aldaketa onarpena (kreditu gehigarri motakoa).
- 6.- Igogailuen instalaziorako diru laguntza emateak arautuko dituen udal arautegiaren onarpena.
- 7.- Mozioa
- 8.- Eskari galderak
- 9.- Berri emateak

- ESAN EGINAK ETA ERABAKIAK:

Osoko Bilkura legez osatzeko behar adinako kopuruak parte hartzen duela egiaztatu ondoren, Alkateak bilkura irekitzat ematen du.

Bestalde Udalbatzak aho batez berretsi egiten du gai ordena eta gai ordenetik kanpo dagoen Lurralde Historikoko Herritarren partaidetzarako erakunde arteko espazio bat sortzeari buruz hartu beharreko erabaki baten urgentzia aho batez aitortu ondoren akordioa bozkatzea erabakitzen du.

1.- 2016KO ABENDUAREN 28KO OHIKO ETA 2017KO MARTXOAREN 8KO EZ OHIKO UDALBATZETAKO AKTEN ONARPENA.

Alkateak galdetzen du ea korporazioko kideren batek baduen aipaturiko 2016ko abenduaren 29ko ohiko eta 2017ko martxoaren 8ko ez ohiko udalbatzetako akten onarpenean inolako oharrik aurkezteko asmorik.

Bertaratutako zinegotziek EAJ/PNV alderdiko zinegotzien abstentzioarekin (2) (martxoaren 8ko ez ohiko udalbatzako aktan) honako ERABAKIA hartzen du Udalbatzak:



IKAZTEGIETAKO UDALA
GIPUZKOA

2017KO MARTXOAREN 29KO OHIKO UDALBATZA.

BAKARRA: 2016ko abenduaren 29ko ohiko eta 2017ko martxoaren 8ko ez ohiko udalbatzetako aktak onartzea.

EAJ/PNV alderdiko Patxi Ulanga Mujika zinegotziak adierazten du abstenitu egiten direla martxoaren 8ko ez ohiko udalbatzako aktaren onarpenean ez zirelako udalbatza horretara etorri.

2.- ALKATEAK EMANDAKO EBAZPENEN KONTU EMATEA.

Gaurko honetan 2016/181tik 2016/184rainoko eta 2017/01tik 2017/49rainoko ebazpenak irakurtzen dira.

3.-2016. URTEKO UDAL AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA.

Idazkari-kontu hartzaileak, 2017ko martxoaren 17an 35/2017 Alkatetza dekretuz hartutako erabakiaren berri ematen du (2016. urteko aurrekontuaren likidazioa).

4.-ORAIN ARTE EXEKUTATUTAKO AURREKONTUAREN ETA ALTXORTEGIAREN BERRI EMATEA.

Idazkari kontu hartzaileak, 2017. urteko martxoaren 24 arte exekututako aurrekontuaren eta altxortegiaren berri ematen du.



5.-1/2017 KREDITU ALDAKETAREN ONARPENA (KREDITU GEHIGARRI MOTAKOA).

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientearen berri eman da, kreditu gehigarrien modalitatekoa.

Idazkari kontu-hartzaileak egindako txostena irakurri da. Bertan adierazten da aipatutako espediente bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.

Era berean, ogasuneko batzorde informatiboak egindako aldeko irizpena eta onarpen proposamena irakurri dira.

Gaia aztertu ondoren, udalbatzak, bozketa egin eta gero, EAJ/PNVko zinegotzien abstentzioarekin (2), honako hau

ERABAKI DU

Lehenengoa.- Onartzea udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espediente, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

KREDITU GEHIGARRIAK



IKAZTEGIETAKO UDALA
GIPUZKOA

2017KO MARTXOAREN 29KO OHIKO UDALBATZA.

Kapitulua	Izena	Gehikuntzak
2	ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUAK (jarduera sozio kulturalak)	7.079,42
6	INBERTSIOAK (inbertsioak bide publikoan)	22.258,37
6	INBERTSIOAK (Irisgarritasun planaren idazketa lanak)	9.075,00
KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA		38.412,79

FINANTZAKETA

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
8	FINANTZA AKTIBOAK	38.412,79
GUZTIRA		38.412,79



IKAZTEGIETAKO UDALA
GIPUZKOA

2017KO MARTXOAREN 29KO OHIKO UDALBATZA.

Bigarrena.– Jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honek aurrekontua onartzeko ezarritako gainerako tramiteak jarraitu beharko ditu.

6.- IGOGAILUEN INSTALAZIORAKO DIRU LAGUNTZA EMATEAK ARAUTUKO DITUEN UDAL ARAUTEGIAREN ONARPENA.

Kontuan izanik Ikaztegietakoko herrian badaudela igogailua behar duten eta oraindik ez duten etxeak eta jakinik obra horrek esfortzu ekonomiko handiak suposatzen dituela jabeekideentzat Ikaztegietakoko Udala honek eskaera horri erantzun nahian udaleko zerbitzuek igogailua jartzeagatik diru laguntza emateak arautuko dituen ordenantza prestatu dute eta zinegotzi guztiei aurrez banatu zaie.

Zinegotziak gaia aztertu ondoren bertaratutako zinegotziak aho batez ondorengo erabakia hartzen dute:

LEHENA:Lehena. Hasierako onespina ematea Igogailuen instalaziorako diru laguntza emateak arautuko dituen udal ordenantzari.

BIGARRENA: Espedientea jende aurrean jartzea, gutxienez, hogeita hamar eguneko epeaz, egoki iritzitako erreklamazio eta iradokizunak aurkeztu ahal izateko.

HIRUGARRENA: Epe horretan alegazio edo iradokizunik egongo ez balitz, behin betikoz onartutzat emango litzateke; Alkateari eskumena espresuki eman zaio, kasu horretan, argitaratu eta gauzatzeko.

7.-MOZIOA: IKAZTEGIETAKO UDALAK ARALARKO GATAZKA KONPONTZE BIDEAN HARTZEN DUEN ERABAKIA.



IKAZTEGIETAKO UDALA
GIPUZKOA

2017KO MARTXOAREN 29KO OHIKO UDALBATZA.

Bakarne Otegui Jauregui Alkateak, Aralar Bizirik Plataformak Ikaztegietakoko Udalean aurkezturiko “Aralarko gatazka konpontzera bidean” mozioa udal bilkurara ekarri du eztabaidatu eta bozkatua izateko.

Eztabaidatu ondoren testuaren onespena botoetara jartzen da, botazioak honako emaitza aurkezten duelarik:

-Mozioaren aldeko 3 boto.

-Mozioaren aurkako 2 boto.

Horrenbestez Ikaztegietakoko Udalbatzak erabakitzen du:

LEHENA: Saltarrikoa, zein beste pista proiektu guztiak gelditzea.

BIGARRENA: Enirio-Aralarko Mankomunitateak 2003an onartu zuen Ekintzen egitamua berrikusi dezala, eman daitezken erabilerak naturaren babesaren menpean jarriz eta, onartzeko prozesuan, herritarren parte hartzea eta eztabaidari bide emanez.

HIRUGARRENA: Enirio-Aralar mendi publikoa izanik, Mankomunitatea erakunde gardena eta irekia izatea, informazioa zabalduz eta Enirio-Aralarren zainketan herritarrak parte hartzeko bideak ipiniz.

LAUGARRENA: Herri bakoitzak Mankomunitatean duen ordezkariak, Aralarren inguruko gai garrantzitsuenetan gutxienez, Udal horietako plenoan eztabaidaturiko eta bozkaturiko erabakia eramango du Mankomunitateko batzarretara.

BOSGARRENA: Udal erabaki honen berri ematea Enirio-Aralarko Mankomunitateari eta Foru Aldundiko Ingurumen eta Mendietako eta Natura Inguruneko Zuzendariei.

EAJ/PNV alderdiko Patxi Ulanga Mujika zinegotziak adierazten du kontrako botoa ematen dutela ezin dutela horrelako mozio erabaki bat ekarri udalbatzara Enirio-Aralarko Mankomunitateari gardentasuna exijituz Ikaztegietakoko Udalbatza gardena ez denean izan gai honekin. Eskura eduki izan duten informazio bakarra zuzenean Mankomunitatetik pasatakoa izan denean eta ez Udaletxetik.



IKAZTEGIETAKO UDALA
GIPUZKOA

2017KO MARTXOAREN 29KO OHIKO UDALBATZA.

Bakarne Otegui Jauregui Alkateak erantzuten dio bera ez dela pertsona egokiena gardentasunaz hitz egiteko eta Aitutuko etxebizitzetako urbanizazioa bereganatu gabeko gaia leporatzen dio adibide bezala. "CONSTRUCCIONES IRAZUSTABARRENA, S.A." enpresak 9.411,85euroko ordainketa bat egin ziola Ikaztegietakoko Udalari 2002. urteko otsailaren 6an Aitutuko urbanizazioan bukatu beharreko lanak konpentsatzeko eta Udalak ez dituela egin falta ziren lan guztiak.

8.-IKAZTEGIETAKO UDALAK GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO HERRITARREN PARTAIDETZARAKO ERAKUNDE ARTEKO ESPAZIORA ATXIKITZEKO ERABAKIA.

Era berean, Gipuzkoako Foru Aldundiak *Lurralde Historikoko Herritarren partaidetzarako erakunde arteko espazio bat sortzeari buruzko Foru Dekretua* onartu du, bere bigarren artikuluan zehazten duen moduan ondorengo helburuekin:

- a) Sare bat edo erakunde arteko topaketa espazio bat eratzea Lurralde Historikoko maila anitzeko gobernuen ikuspegitik, batik bat, foru gobernuaren eta tokiko gobernuen ikuspegitik, eta horren helburua herritarren partaidetzarako politikak sustatzea izango da, herritarren eta erakundeen arteko erlazioak indartu daitezen.*
- b) Herritarren partaidetzaren arloko erakundeen esperientziak eta jardunbide egokiak trukatzeko espazio bat ezartzea, alor horretako elkarrekiko ikaskuntzako erakunde-komunitatea eta hobekuntza instituzionala sustatuta.*
- c) Laguntza eta lankidetzak teknikorako bideak hedatzea Espazioan dauden erakundeek betebehar arauemaileak egikaritzeko, araudiak eta*



IKAZTEGIETAKO UDALA
GIPUZKOA

2017KO MARTXOAREN 29KO OHIKO UDALBATZA.

ordenantzak onartzeko eta herritarren partaidetzarako metodologiak, prozesuak eta tresnak martxan jartzeko.

d) Herritarren Partaidetzako alorrean Foru Aldundiaren diru laguntzen politika zehazten laguntzeko tresna izatea.

e) Prestakuntza programak eta jardunaldi espezializatuak sustatzea, baldin eta zeharkako alor honetan eskuduntzak dituzten kargu publiko adierazgarrien eskumen instituzionalak indartzen badituzte eta herritarren partaidetzaren alorreko foru eta udal zuzendari eta teknikarien gaitasun profesionalak garatzen badituzte.

Udal honen nahia Espazio horren parte izatea izanik Osoko Batzarrari proposatzen zaio atxikimen adierazpen hau onartzea.

Halaber, Foru Dekretuak bere Hirugarren Xedapen Gehigarrian zehaztu moduan, atxikimen honek bere gain konpromiso hartzea eskatzen dio.

Gaia aztertuta Udalbatzak aho batez erabakitzen du:

1. Ikaztegieta Udala Foru Dekretuak sortzen duen Gipuzkoako Lurralde Historikoko Herritarren partaidetzarako erakunde arteko Espazioari atxikitzea.
2. Foru Dekretuak bere Hirugarren Xedapen Gehigarriaren arabera zehaztutako konpromisoak beregain hartzea.

a) Arlo politikoan nahiz teknikoan modu aktiboan parte hartzea Espazioko organo edo egituretan esleitutako pertsonen bitartez.



2017KO MARTXOAREN 29KO OHIKO UDALBATZA.

- b) Espazioaren funtzionamendua sustatzea, proposamenen eta ekimenen bitartez.
- c) Foru Aldundiak, tokiko erakundeen mesedetan, sustatuko dituen herritarren partaidetza arloko diru-laguntzen lerroei buruzko iritziak definitzeko eta zehazteko prozesuetan parte hartzea eta eztabaidatzea, betiere Espazioko organo edo egitura eskudunen bitartez.
- d) Proposatzea partaidetzarako programa zehatzak, prestakuntza programak, topaketak, mintegiak eta prestakuntzako beste hainbat jarduera, Espazioko organo edo egitura eskudunek eztabaidatu eta onartu ditzaten.
- e) Gida metodologikoak eta herritarren partaidetzarako onuragarriak izango diren beste edozein baliabide edo tresna proposatzea, bereziki partaidetzazko aurrekontuen ereduak eta estrategiak diseinatzea.
- f) Espazioan ezartzea partaidetza alorreko praktika onak, bertan parte hartuko duten erakundeen ezagutza handitzeko eta herritarren partaidetzako foru, udal eta tokiko erakundeen politikak hobetzeko.
- g) Espazioaren aurrekontuak ezagutzea eta, behar bada, gai horren inguruan eztabaidatzea organo edo egitura eskudunen bitartez.
- h) Partaidetza alorrean Foru Aldundiak burutuko dituen laguntza tekniko eta lankidetzako prozesuetan udalei eta tokiko erakundeei laguntza ematea, arazoak edo gai irekiak behar bezala identifikatzeko, erregelamendu nahiz ordenantza-tipoak eta



IKAZTEGIETAKO UDALA
GIPUZKOA

2017KO MARTXOAREN 29KO OHIKO UDALBATZA.

proposatutako gida metodologikoak sustatzeko, eta herritarren partaidetzako tokiko politikak hobetzera bideratutako Espazioaren beste edozein ekimen bultzatzeko.

i) Espazioa dinamizatzea egungo egituren bidez, eta foro teknikoak koordinatzea, hala behar bada.

3. Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuko Herritarren Partaidetzarako Zuzendaritzari erabaki honen berri ematea.

9.- ESKARI GALDERAK.

EAJ/PNV alderdiko Patxi Ulanga Mujika zinegotziak adierazten du Aitutuko urbanizazioan bereganatu gabe gelditu ziren obren eta jasotako diruaren inguruan informazioa bilduko duela eta pasako dela Udaletxetik gurekin egoteko.

10.- BERRI EMATEA

Ez dago berri ematerik.



IKAZTEGIETAKO UDALA
GIPUZKOA

2017KO MARTXOAREN 29KO OHIKO UDALBATZA.

Horrenbestez, arratsaldeko 22:30 direnean, Alkateak bilkura amaitutzat eman du. Eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, akta hau egin dut alkatearen oniritziarekin.

Ikaztegietan 2017ko martxoaren 30ean

O.I.
ALKATEA,

